

## egunekoa

Teresa Toda

(Kazetaria)

# Lapikoan zer dago?

**O**nartu behar da Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren proposamenak lurrikara txiki bat eragin duela euskal egoera politikoa. Nire ustez, hala ere, jautzia ez dago dokumentuaren edukietan, baizik eta horren inguruan sortu diren elkarrizketetan eta eztabaidetan. Ez da gauza gutxi, gauden egoera nahasian. Azken finean, proposamenaren balio handiena hau izango da; gatazka konpontzeko benetako asmoa baldin badu, horrela izan behar da, gainera. Bestela, EAJk eta EAK proposamena Biblia bezala kudeatuko balute —ukituzina, itxia, bide bakarra—, euskal gizartea frustrazio ziklo berri batean sartuko lukete. Ez da ahaztu behar proposamen ezberdinak mahai gainean daudela gizartean; esate baterako esparru abertzalean Batasunak bere momentuan kaleratu zituenak, Udalbiltzarren azken proposamenak, eta eztabaidan bertan sortu daitezkeenak, sintesi edo minimo amankomun gisa.

Benetan larria izango litzateke eztabaida alderdi baten proiektura mugatzea, gatazkaren mamia, hots, Euskal Herriari eta euskal biztanleriari zor zaizkien eskubide guztiak saihestuta. Lehenengo eta behin, horretaz mintzatu eta erabaki egin behar da, eta euskal herrialdeetan zehar; gero, oinarriak behin ondo finkaturik, etorriko da bakoitzaren proposamenen inguruko galdeketa, adibidez, hauteskunde bidez. Beraz datozen hilabeteak joan diren aste zaratazuek baino garrantzizkoagoak dirudite, beti ere eragile guztiak, lehendakariak hasita, gai agertzen bazaizkigu ireki den eztabaida ondo aztertzeko eta eztabaiden benetako ondorioak —bertan ematen direnak, ez kanpotik botatzen dizkigutenak— azken muturreraino eramateko.

Ibarretxeren testuaren gabeziak eta ekarpenak alde batera utzita —aski idatzi eta esan da jadanik hauen inguruan—

, egungo egoera inflexio-puntu politiko bihurtu dela ukaezina da. Aurrera edo atzera egin behar da, ez dago besterik. Atzera egitea erraza da: Estatuak jarritako sareak hor daude bide *okerrean* ibili diren *damutuak* artaldean berriro jasotzeko, Euskal Herria osatzeko guztiz alferrekoa izan den Estatutua eta Espainiako Konstituzioa dirrela medio. Baina garesti ordainduko luke euskal gizarteak, zeren aukera horretatik entzefalograma politiko laua besterik ezin da atera, gatazkaren luzaerarekin. Puntu honetan arrazoia du PSEko Patxi Lopezek, proposamenak egoera listartian uzten gaituela esaten duenean. Proposamenak Espainiarekin Estatutu berri bat adosteko azken helburua balu, Lehendakariaren bidaiaren antzutasuna agerian geratuko litzateke, gatazka geldiarazteko, are gutxiago konpontzeko, kapaza ez dela ongi frogatuz.

Aurrera egitea zailagoa da, bai horixe, baina askoz aberatsagoa, konponketa eta bakea baititu irabazteko. Zaila, bai, berez Euskal Herria nazio bezala osatzea oso erraza ez delako, areago oraindik Estatu espainola Euskal Herriaren aurkako ofentsiban bete-betean dagoenean. Tamalez, momentu honetan ikara gehiegi ikusten da mehatxu hauen aurrean, horren lekuko, askotan gertatzen dena: Lakua edo Gasteizko Parlamentutik gaur esandakoa bihar Lehendakariaren bozemaileak zehaztaperen bidez leuntzen du, Madrilen zaunkak baretu nahian.

Ausardia behar da, gatazkaren munitari ondo heltzeko eta konponbidean jartzeko. Ausardia eta borondate politikoa, noski, prozesu berri bat irekitzeko, lehen egindakoen ikasketak aplikatuz,

akatsak gaindituz. Ausardiak ez du esan nahi egun batetik bestera gauzak goitik behera aldatu behar direnik; dagoen guztia zakarrontzira botaz, jakina. Baina helburu garbiak eskatzen ditu, hara iristeko planifikazio zentzuduna eta sendoa, eta, bereziki, eragileen arteko ondo oinarritutako adostasuna, jarriko dituzten zailtasunak gainditzeko asmoarekin.

### EGUNGO EGOERA

#### Sukaldeko lan asko eskatzen du egoerak; lapikoan dagoena eskasa da Euskal Herriaren beharrak asetzeko

Horrelako oinarriko akordioa eragile abertzaleen artean bakarrik lor daiteke hasieran, baina ez gaur, tamalez; azken bi urteotako urruntze handia gainditzeko zubiak oraindik eraiki gabe daudelako eta zaindu

ordez, lehengo eta oraingo zaurietan egoerak gatza igortzen die. Elkarrizketarako, eragile batzuk ezker abertzaleari aurrealdintzak jartzen dizkiote, aintzat hartu gabe aurrealdintzat jotzen dituztenak elkarrizketaren ondorioak izango direla, ez kontrakoa. Eta ahoz Espainiako Auzitegi Nazionalaren erabakiak arbuizatzeko baina gero horiek ekintzetan gauzatzeak ez du gauzak errazten laguntzen, ezta ere Instituzioetatik eskubideen defentsa egiterakoan balantza beti alde batera desorekatzeak, tortura edo presoen egoeraren aurrean itsu. Hitz gorrak eta besteei oker guztiak leporatzea ez da, ezta ere, lagungarri izango.

Urtebeteko epea eman dio EAEn lehendakariak bere buruari zer edo zer osatzeko. Beste eragileei eskatu die jarri irekiak edukitzea, baina lehena berea izan behar da. Sukaldeko lan asko eskatzen du egoerak; lapikoan dagoena eskasa da Euskal Herriaren beharrak asetzeko. Osagai batzuk ustelduta daude eta hobe da jakitik kentzea, freskoak eta landu berriarekin ordezkatzeko, gisatua ondo loditzeko.

## zutabea

Menane Oxandabaratz



### Burua leihorrean atxik!

**M**emento huntan anitz aipu da Iparraldean bederen, eskualdekatze edo dezentralizazioa. Lehen ministro J. Pierre Raffarinnek antolatzen ditu laster jardunaldiak horri buruz. Departamenduko aldarrikapenetik, euskararen gaia hor dela eta... ahantzi gabe laborantza ganbera, aspaldiko urte honetan Iparraldeko jendarte batek emeki-emeki bereganatu ditu eskakizun horiek. Lehen pausoak baizik ez dira, oinarrikoak! Hizkuntza: euskararen eguneroko erabilpena peko errekarat abian zaurkun garaian... Euskal departamendua: lur eremu bat Iparraldeko biztanleek herrialde bat izanen dutena. Konpetentziak izanen dituen alor askotan, ekonomia, sozial arlotik abiatuz...

Laborantza ganbera: lan mundu berezi bati idekia bada ere, ondotik beste aldarrikapen batzuek ere indarra izanen dute, ofizialeak, unibertsitatea, osagarri mundua eta beste hainbat eta hainbat alor hunkiak litaizkeenak. Horiek guziez Iparraldeko jendarte oso batek bat egiten du, abertzaleek plazaratu aldarrikapenekin.

Horiez gain beste gogoeta eta proposamen batzuk plazaratzen dituzte abertzaleek. Euskal Herri baten ezagutza, hiru eremu ezberdinetan direnak. Instituzional gaitasunak ez direnak berdina denentzat. Burujabetza prozesu baten gogoeta, Iparraldeko instituzio berezia, horiek aipu dira eta alderdi politikoa bakoitzak bere ikusmoldea eta gogoeta eramaiten du.

Horiek guziki direla eta, berriro Frantziako lehen ministroaren deklarapenek sortzen ditu itxaropenarekin batera susmoak, kontraesan gogoetak. Aste honetan berriro entzun dugu Frantziako agintari hau deklaratzeko departamenduaren aurka dela. Aldi berean Barne ministroa ari da Korsikari buruz proposamenak egiten, erreferendum bat aipatuz, presoen hurbilketa ere plazaratzen duelarik. Agintari horiek irakurriko balituzte nire zutabeak eska nezake sinesgarritasuna ze hein arte izan behar duten euskal, korsikar, bretoin... jendarteek?

Segur dena aipatu borroka horiek ez direla oraino bururatuak. Froga hor dugu ostegun honetan, azaroaren 7an, arratsaldeko 2etan, aldi bat gehiago Demo-koak auzitaratuak izanen baitira, aldi hontan Zuzen-eko bi kide berekin izanen direlarik, Baionako geltokian taula seinale bat frantses hutsean izanez elebidun batekin ordezkatu dutelakotz.

Atxik beti burua erno eta zangoak leihorrean!

## seiko urrea

Iñigo Aranbarri



### Satorrak baino lurperago

**D**eportazioa hitz zaterra da. Nekez egongo da zatarragorik, hain du luzea itsuskeriak itzala. Deportazioa bortxa da, mehatxuak eta puta hotsak. Eskuburdinak eta bi neurriko giza-kiak. Orain lehorra, orain ozeano zabalarren gainean zerua eta euri-malkoak ikusten dituzten begiak. Hona hitz zatar bat, zatarrak bada.

Marisa Giraldo Euskal Herrian bizi izan da asteazkenara arte. Bi urte zeramatzan

Irunen, lanean, artritisa uzten zionean. Baina ez zuen paperik. Bai amak eta nebak, ez ordea berak eta ahizpak. Polizia lehengo astean ere joan zitzaion bila, baina ihes egitea lortu zuen. Aste betera ehitatu du, nebari laguntzen ari zela. Eta deportatuen maneran, atxilotu, «ez dakigu non dagoen» eduki, eta hegazkin batean sartuta, Bogotara bidali dute. *Itzuli*, esan dute agintariek. Marisa Giraldo atxilotu zutenetik, amak ez ditu beste alaba eta

iloba ikusi. Lehendik erdi ezkutuan bizi ziren milaka euskal herritar bezala, satorrak baino lurperago gorde dira.

Espainiako Polizia Nazionala da, momentuz, etorkin ehizan dabilena Euskal Herrian. Teknikak, telebistako erreportariak Kolonbiako polizia leporatzen dizkieten berberak. Pasaporteak kendu eta jabea fotokopiarekin utzi, «etxerako txartelarekin zatozenez itzuliko dizugu» esanda. Edota neskame dagoen etxera deitu eta galdetu: «Poliziatik deitzen dut. Lisa etxean dago?». Eta etxekoandrea beldurtuta, neska sorterrira *itzuliko* duten beldurrez: «ez, ez dakit non dagoen». «A, pena! Egoile baimena lortu duela abisatzeko zen». Horrela ari dira gizakiak satorrak balira bezala harrapatzen Euskal Herrian.

Bogotako txabolak hegazkin leihotik sartu zaizkio Marisa Giraldo. Hamabost egun lehenago, Jaurilaritzak etorkinentzako laguntza juridiko-soziala jarri zuela abian entzun zuen telebistan. Sinadura ekitaldian, abokatu artean, Javier Madrazo sailburua eta Boladji Omer Oke Inmigrazio zuzendaria ezagutu zituen. Argi printza bat eguneroko bizimoduan, pentsatu zuen. Hemendik egun batzuetara jakingo du hegazkina Eldorado aireportura heldu eta gero ere Jaurilaritzako inor ez dela agertu bere deportazioaren kontra.

Marisa Giraldo Irunen ikasi zuen ez zegoela Espainian, Euskal Herrian baizik. Orain badaki zuzen zegoela, Euskal Herria deitzen badute ere, hura Espainia dela.